

# Aspaldiko ametsa betez, erretiroan ikasle

Erlojurik gabeko denboraldia da erretiroa. Ikasketei ekiteko parada ezin hobea, lan mundutik erretiratu diren batzuentzat. Bizitza ikastea bada, ez da inoiz berandu.

Denbora librean ikasten igaro nahi duenarentzat hona hemen bi aukera:

herrietako esperientzia eskolak eta unibertsitateko Esperientzia Gelak.



2006-2007ko Goierriko Esperientzia Eskolako ikasleak.

## Saioa Labaka

**BADIRA BOST URTE** Gipuzkoan Goierri Urola Garaiko Esperientzia Eskola abian jarri zutela. Berau izan dugu herri ugarian ireki dituzten mota honetako ikastetxeen eredu. 50 urtetik gorako lagunei zuzenduta dago eta parte hartzeko ez da titulurik behar. Aski dira jakin-mina, ikasteko gogoia eta norberaren esperientziak gelakideekin partekatzeko nahia izatea. Goierri eta Urola Garaiko adineko pertsonen gizaratean positiboki eragin ahal izateko baliabideak eskaintzen zaizkie eta baita kultura eta ezagutza maila hobetzeko parada ere. Guztira 110 ikasle pasatu dira Esperientzia Eskolatik, eta aurten, 2006-2007 ikasturtean, 16 pertsona ari dira ikasten bertan.

Esperientzia Eskolako ikasturteak urritik ekainera bitarteko iraupena du eta eskolak

**Proiektu interesgarriak atera izan dira Esperientzia Eskolako lantaldeetatik. Esaterako, ikasleek sortutako *Goierri, 9 ibilbide* Ordiziatik liburuxka**

Ordiziako Mallutz industrialdean izaten dira astearte, asteazken eta ostegun goizetan. Esperientzia Eskola honetako ikasleek ez dute azterketarik gainditu beharrik; izan ere, gizarate hobeto ulertzen lagunduko dieten ezagutza eta giltzarriak eskaintzea da helburu nagusia.

Ikasturtean hiru gai multzo nagusi lantzen dituzte: oinarriko multzoa, multzo espezifikoa eta ikasturte bukaerako proiektua. Hainbat ekintza osagarri ere egiten dituzte: hitzaldiak, mintegiak, ibilaldiak, bisita kulturalak... Oinarriko multzoan adineko pertsonen lotura zuzena duten gaiak lantzen dituzte: osasun fisiko eta mentala zaindu eta hobetzeko ikasgaiak, adineko pertsonen eskubideen ingurukoak, gizarate harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, sexualitatea... Bestalde, Giza

## Hirugarren adinekoak unibertsitatean

Aurten, 2006-2007 ikasturtean, guztira 734 pertsona matrikulatu dira Euskal Herriko Unibertsitateko Esperientzia Geletan: Gipuzkoan 164, Araban 204 eta Bizkaian 366. Adineko pertsonen zuzendutako hezkuntza ekimen honetan ofizialki bi titulu eskaintzen dituzte. Batetik, Giza Zientzietako Unibertsitate titulua: titulu hori lau ikasturte gainditu eta gero lor daiteke. Bestetik, Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak daude, bi ikasturteko iraupena dute eta ikastaro hauetan parte hartzeko ezinbestekoa da Giza Zientzietako unibertsitate titulua izatea. Esperientzia Gelen ikasturtea urrian hasi eta ekainaren erdialdean amaitzen da.

Egitasmo honen parte-hartzaileak 55 urtez gorako herritarrak dira. Oro har, erretiratuak, aldeztuak, aldez aurretik erretiratuak eta etxeko lanak egiten dituztenak izan ohi dira. Esaterako, administrariak, itsasoko kapitainak, jostunak, ile-apaintzaileak, ingeniariak, fabriketako langileak... topatu ditugu Edurne Etxebarria Euskal Filologiako irakaslearen eskoletan. Esperientzia Geletara etortzeko aipatu diz-

kiguten arrazoiak nagusiki hauek dira: trebakuntza intelektuala osatzeko nahia eta aspaldiko ametsa betetzea: ikastea. Esperientzia Geletan sartu ahal izateko, ez da beharrezkoa inolako titulurik edo aurretiazko baldintza akademikorik edukitzea. Goierriko Esperientzia Eskolan bezala, bizipen berriak izateko gogoia aski da Gela hauetan parte hartzeko. "Oso motibatuta daude ikasleak, galdera asko egiten dituzte eskolan eta adi-adi egoten dira irakaslearen azalpenak entzuten. Benetan eskertzekoa da halako ikasleak edukitzea", adierazi du Etxebarriak.

Bestalde, 2001. urtean, Esperientzia Geletako ikasleek eta ikasle ohien artean eskoletan landutako jardueren bultzada emateko ACAEX-EGIKE elkarteak eratu zuten, EHUk eskaintzen dituen titulazioak amaitzean ikasleek artean sor daitezkeen hutsune akademikoak betetzeko xedearekin. Hau da, eskoletan eskuratutako trebakuntza aberasten jarraitzeko aukera dute ikasleek. Elkarrekin hitzaldiak, kultura irteerak eta mintegiak ere antolatzen ditu. Egun, 250 bazkide inguru ditu.

Zientzietako ikasgaiak ere jorratzen dituzte: Soziologia, Filosofia, Literatura, Zuzenbidea, Oinarriko Ekonomia, Zientzia eta Teknologia, Euskal Arteak, Goierri-Urola Garaiko Historia eta Ohiturak... Azkenik, ikasturte amaieran gizartearentzat baliagarri diren proiektuak lantzen hasten dira ikasleak. Bidean, Gueske izeneko elkarte bat osatu dute Esperientzia Eskolako ikasle ohiek eta elkarte honen bitartez ikasturte amaieran hasitako proiektuak egiten dituzte. Aipatzekoa da proiektu interesgarriak atera izan direla Esperientzia Eskolako lantaldeetatik. Esaterako, *Goierri, 9 ibilbide Ordiziatik* liburuxka sortu zuten Eskolako ikasleek eta 2005. urtean kaleratu zuten lana Ordiziako Udalaren eta Euskadiko Kutxaren laguntzaz. Liburuxka honek Ordiziako eta inguruetako ibilaldiak biltzen ditu eta zehatz-mehatz azaltzen dira bertan ibilbideen distantziak, denbora orientagarriak eta monumentu esanguratsuen argibideak.



Goierriko Esperientzia Eskolako ikasleak Ormaiztegiako Zumalakarregi museoan.

Egun, iazko ikasturteko Esperientzia Eskolako ikasleak astean behin biltzen dira eta eskualdeko etorkinen integrazioa bultzatzeko proiektuan ari dira lanean buru-belarri. Besteak beste, etorkinentzako zerbitzu gida bat osatzen ari dira, gerora argitaratzeko asmoz. n

# AQUARIUM

Karlos Blasco de Imaz Plaza, 1  
20003 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)  
Tel: 943 44 00 99 • [aquariumss@aquariumss.com](mailto:aquariumss@aquariumss.com) • web orria: [www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

## Marian Madariaga eta Ramon Telleria, Esperientzia Eskolako ikasleak

# «Orain ez dugu gaztetako presio eta obligaziorik»

Marian Madariaga eta Ramon Telleria 2005-2006 ikasturtean Goierriko Esperientzia Eskolan aritu ziren ikasten. Gaur egun, astean behin biltzen dira gainerako kideekin etorkinentzako zerbitzu gida osatzeko.

Zergatik animatu zineten Esperientzia Eskolan izena ematera?

**Marian Madariaga:** 19 urterekin hasi nintzen lanean eta garai hartan ez nuen karrerarik ikasteko gogorik izan. Harrezkero, lana besterik ez dut egin. Behin, irratian Esperientzia Eskolaren iragarria entzun nuen eta ikasteko gogoia piztu zitzaidan. Orain ez dugu gaztetan genuen presio eta obligaziorik eta goizean ordu batzuk libre nituenez, eskolan izena ematea pentsatu nuen.

**Ramon Telleria:** Erretiratu nintzenean, denbora libre nolabait bete egin behar nuen eta nagusiki asmo horrekin etorri nintzen Esperientzia Eskolara. 17 urtera arte eskolan ibili nintzen, eta lanean hasi nintzen berehala. 62 urte ditut orain eta gauza berriak ikasteko aukera topatu dut Esperientzia Eskolan. Aurreko urteetan bertan ikasten aritu ziren lagunek ere animatu ninduten hona etortzera.

Denbora luzez ikasgeletatik kanpo egon ostean, gustura sentitu zarete?

**R. Telleria:** Bai, gaiak oso interesgarriak izan dira eta denetik ikasi dugu. Oso aberasgarria izan da esperientzia. Gure ohiturak aldatzeko ere lagungarriak izan dira ikastaroak. Esaterako, ni ez naiz inoiz izan irakurle fina, liburu bat hasi eta bukatu ez dakit egin ote dudan! Orain liburu bat dut esku artean eta gustura ari naiz irakurtzen. Bestalde, jende aurrean hitz egitea kostatzen izan zait beti, eta taldean lanean aritzeak alderdi hori garatzen lagundu didala iruditzen zait.



Oro har, nolakoak izaten dira eskola orduak?

**M. Madariaga:** Gehienbat praktikoak izan ohi dira; ikasleok eskolatan parte hartzen dugu eta gustura sentitzen gara. Ez dugu azterketarik egin behar eta etxeko lanik ere ez digute bidaltzen. Irakasle batzuek ikasteko gogoia piztu digute eta bizi poza eman; asko motibatzen gaituzte eta eskertzekoa da. Hainbat irteera ere egin dugu eta gauza asko ikasteko balio izan digute.

Jendeari proposatzeko moduko esperientzia izan al da?

**M. Madariaga:** Oso esperientzia ona izan da niretzat. Halere, nahiz eta oso gustura joan eta esperientzia interesgarria izan dela esan, jendeari kostatzen zaio honelako tokietara etortzea. Jendeak erosotasuna bilatzen duela esango nuke, eta eguneroko ohituretatik kanpo ezer gutxi egiten duela. Arratsaldeetan kafea hartzera eta paseatzera joaten dira gehienak, baina ikastaro edota hitzaldi batera joatea ez zaie bururatzen. Aipatzeko datua da Esperientzia Eskolara etortzen diren gehienak emakumeak direla; emakumeok gai hauekiko interes gehiago dugula edota aktiboagoak garela esango nuke.

**R. Telleria:** Jendeak eskola hitza entzuten duenean atzera egiten du. Guk esplikatzeko diegu, ordea, ez duela gure garaiko eskolarekin inongo zerikusirik, zeharo ezberdina dela. Oro har, esperientzia aberasgarria izaten da hona etortzen diren guztientzat.

Egun, etorkinen integrazioarako proiektuarekin zabilazate lanean.

**R. Telleria:** Gogotsu ari gara proiektuarekin eta taldean lan egitea betiere samurra izaten da. Denen artean ahal dugun guztia egiten ari gara eta gure lana norbaiti baliagarria izango bazaio, askoz hobea. Gerora, egindako lana argitaratzeko asmoa ere badugu. ▢